



Iruñan, 2018ko abuztuaren 23an

NAFARROAKO HEZKUNTZAREN KALITATEA HOBETZEKO ITUNAREN SINADURA KRITIKOA EGINEN DU STEILASEK

Nafarroako Hezkuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Itunaren behin betiko testua irakurri ondoren, barne koordinazio organoetan dagozkion kontsultak eginik, STEILAS sindikatuak erabaki du babes kritikoa ematea itun honi eta, ondorioz, abuztuaren 24an, ostiralez, egitekoa den sinadura ekitaldira bertaratzea.

Uste dugu itunean negoziazioari esker jasotako neurriak baliagarriak izan daitezkeela irakasleen lan baldintzak eta Nafarroako hezkuntza publikoaren egungo egoera hobetzen hasteko. Hala ere, oraindik neurriok zehaztea falta da, eta haietan sakontzea, lortu nahi ditugun emaitzak erdiesteko.

Zoritxarrez, gobernuak negoziazioak hainbat aldiz eten ditu, eta eztabaida denboran atzeratuz joan da, nahita, aurreko ekitaldietako aurrekontuetan hezkuntza publikoarentzako gehikuntza nabarmenak egin zitezen saihesteko. Mobilizazioen bidez lortu genuen egoera iraultzea eta negoziazioa berbideratzea. Horregatik, itun honen bidez gobernuak "in extremis" betetzen badu ere hezkuntzari dagokion programa akordioa, itunean jasotako neurri gehienak ezin izango dira martxan jarri 2019-20 ikastertera arte. Hau da, hurrengo legegintzaldira arte. Horrek agerian uzten du aldaketaren gobernuak hezkuntza publikoarekin duen konpromisorik eza.

Bestetik, itunak ez du konpromisorik jaso STEILASentzat oinarrizkoak diren puntu batzuen inguruan; hala nola lan osasun arloko prebentzio neurriak edo hizkuntzen tratamendu egoki baterako planteamendu berri bat, euskara izango duena ardatz. Gai hauetaz eta beste batzuen inguruan (aniztasunari arreta, hezkidetzeta...), azkenaldian inplementatuz joan direnak sindikatuei ezer kontsultatu gabe, proposamenak egiteko guneak exijitzen jarraituko dugu.

Negoizazioa luzea eta gogorra izan da. Gure aldetik dokumentuari uneoro eta azken momentu arte egin dizkiogu ekarpenak arduraz, hitzarmen hau irakaskuntza langileoentzat ahalik eta onuratsuen izan dadin. Zalantzak zalantza, eta nahi genuen guztia lortu ez dugu arren, ituna sinatzea erabaki dugu, uste dugulako beharrezkoa dela honelako tresna bat edukitzea funtsezko hainbat gai daudenak baino argiago ezartzeko, ikastetxeen antolakuntzari nahiz irakasleen lan baldintzei dagozkienak.

STEILAS erne egongo da, eta Itunaren Jarraipen Batzordean parte hartuko du, hitzartutako neurri guztiak beteko direla ziurtatzeko, hala ez balitz, mobilizazioetara bueltatuz.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus

STEILAS FIRMARÁ DE MANERA CRÍTICA EL PACTO POR LA MEJORA DE LA CALIDAD EDUCATIVA

El sindicato STEILAS, después de conocer el texto definitivo de Pacto para la Mejora de la Calidad de la Educación Pública de Navarra y de realizar una consulta en sus órganos de coordinación, ha adoptado la decisión de dar su apoyo crítico a este pacto y por tanto asistirá al acto de firma que tendrá lugar el próximo viernes 24 de agosto.

Creemos que gracias a las negociaciones se ha alcanzado un Pacto que contiene medidas que pueden empezar a ayudar a mejorar tanto las condiciones laborales del profesorado como la situación actual de la educación pública de Navarra. No obstante, habría que precisarlas y profundizarlas para lograr los resultados deseados.

Desafortunadamente, el gobierno ha interrumpido en varias ocasiones las negociaciones y las ha dilatado, de manera intencionada, en el tiempo para evitar un incremento sustancial de la dotación presupuestaria de la educación pública durante los ejercicios anteriores. Sólo mediante la movilización logramos revertir la situación y volver a la negociación. Por ello, aunque el gobierno con este pacto cumpla “in extremis” gran parte del acuerdo programático referido a educación, la mayor parte de las medidas recogidas en el mismo no empezarán a ponerse en marcha hasta el curso 2019-2020. Es decir, en la siguiente legislatura. Esto demuestra la falta de compromiso del gobierno del cambio con la educación pública.

Por otra parte, en el Pacto no se adquieren compromisos respecto a algunos puntos que para STEILAS son de extrema importancia como, entre otros, medidas de prevención en materia de salud laboral o un nuevo planteamiento para el tratamiento integrado de las lenguas que tenga como eje el impulso del euskera. Seguiremos exigiendo espacios para poder hacer propuestas sobre estas materias, y sobre otras (atención a la diversidad, coeducación, ...) que se han ido implementando sin consultar a las organizaciones sindicales.

La negociación ha sido larga y dura. Hemos estado haciendo, de manera responsable, aportaciones al documento hasta el último momento para que este pacto fuese lo más favorable posible para el profesorado. A pesar de nuestras reticencias, firmamos este pacto porque consideramos que es necesario para tener un instrumento que establezca con claridad aspectos fundamentales tanto sobre la organización de los centros como sobre las condiciones laborales del profesorado.

STEILAS estará vigilante y participará activamente en la Comisión de Seguimiento del Pacto para que todas las medidas del mismo se lleguen a cumplir y en el caso de que no se cumpliesen volveríamos a la movilización.



www.steilas.eus

Araba 📞 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus